

Emakume gehiagok parte hartzea da aurten duatloiko antolatzaileen erronka

Kirola » Martxoaren 26an 10:00etan zabalduko dute aurtengo sprint duatloirako izena emateko epea, eta 392 plaza daude guztira.

DANEL LAUZIRIKA

Apirilaren 18an izango da Gernika-Lumoko Nazioarteko XIV. Sprint Duatloia-Paul Seco V. Memoriala, eta aurten emakumeen lasterketa sustatzea eta indartzea da Urdaitri elkarte kideen asmoa.

Erronka nagusia emakumezko gehiagok parte hartzea dela adierazi du Cesar Ramos Urdaitriko kideak. «Aurten emakumeen lasterketa sustatzeko zerbait egin behar dugula erabaki dugu antolatzaileok. Izan ere, penagarria da lasterketa batzuetan izaten den emakumeen parte-hartze eza. Horrela, internet bitartez emakumeen artean parte-hartzea sustatzen ari gara».

Emakumeen lasterketako plazak 112 parte-hartzaile arte gehitzea erabaki dute antolatzaileek. Iaz 60 emakumek parte hartu zuten. «Emakumezkoen lasterketa gizonetakoena bezain erakargarria bihurtzea da asmoa».

Besteak beste, lasterketa horretan Radka Vodickova Europako txapeldunak eta azken urte bietan Gernika-Lumoko sprint duatloia irabazi duen Vendula Frintovak



Emakumezko parte hartzaileak korrika iazko sprint duatloian. MAITE ORUE

parte hartuko dutela jakinarazi dute antolatzaileek.

Izen emate epea

Martxoaren 26an 10:00etan zabalduko dute izena emateko epea. 'www.triatloi.org' webgunean eman behar da izena, eta parte-hartzaileek 25 euro ordaindu behar dituzte. Euskal Herriko Triatloi Federazioko kide ez direnek antolakuntzaren gonbidapenarekin soilik parte hartu ahal izango dute. «Gizonetako lasterketarako 280 plaza gorde ditugu, eta horiek bete egingo dira. Plazak betetzeko orduan emakumeen lasterketan sortzen dira arazoak».

Berriki Javier Gomez Noya 2008ko triatloiko munduko txapeldunak eta 2007ko Gernika-Lumoko sprint duatloia irabazle-

ak apirilaren 18ko proban parte hartuko duela iragarri du.

Aurtengo ibilbidea iazkoa baino 1.700 metro luzeagoa da; 34,500 kilometro izango ditu guztira. Aurten sektore bakoitza burutzeko atletek izango duten gehienezko denbora luzatzea erabaki dute. «Iaz jende askok ezin izan zuen lehen sektorea gainditu».

Oinez egin beharreko 5,2 kilometroak burutzeko gizonetakoek 26 minutu izango dituzte, eta emakumeek 28 minutu. Lehen bi sektoreak burutzeko gizonetakoek ordu bete eta 28 minutu izango dituzte, eta emakumeek ordubete eta 31 minutu.

Duatloia gainera informazio zehatza hedatzeko 'www.duatlongernika.com' webgunea sortu du Urdaitri.